

**2014KO MAIATZAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bia

**HILABETEA:** Maiatza.

**URTEA:** Bi mila eta hamalaua.

**HASIERAKO ORDUA:** Eguerdiko ordu-batak eta hamar

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Bigarrena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** koldo Agirre Mujika.

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2014ko maiatzaren 7ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

**2.- OBRAK KONTRATATZEA.** Oriamendi kalean urbanizazio obrak egitea: proiektua eta baldintza plegua onartzea.

Oriamendi kalean urbanizazio-obrak egiteko proiektua nahiz obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea:

Ezagutzera eman da, 2014ko maiatzaren 19ko hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

**“Lehenik.** ASTAZALSI ARK, S.L.P.ek idatzitako eta 2014ko martxoaren data duen, Oriamendi kalean urbanizazio obrak egiteko proiektua onartzea.

**Bigarren.** Deialdi publikoa egitea, Oriamendi kalean urbanizazio obrak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko, baldintza plegu administratiboa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 554.559,60 € BEZ kanpo, 671.017,12 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 10 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- a) *Klasifikazioa*: G taldea, 6 azpitaldea, f kategoria.
- b) ISO 9001 ziurtagiria (kalitatearen kudeaketa sistema)
- c) 14001 ISO ziurtagiria (ingurugiro kudeaketaren sistema).
- d) 18001 OHSAS ziurtagiria (lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeari buruzko sistema)

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredu*a: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- a) Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, alde zuzenetik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbateraino hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
2. Ekonomikoa suertatzen den eskaintzak 50 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

B ESKAINTZAREN PUNTUAKETA =  $50 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren kopurua} / B \text{ eskaintzaren kopurua}) * 100)))$ .

- b) Memoria teknikoa: 30 puntu.
- c) Epea: 10 puntu.
- d) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola “BAI EUSKARARI”, “BIKAIN” edo antzeko izaera dutenak

e) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakuaren sustapena lortzeko kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten dituzten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Idazkariak ohartarazi du hirigintza batzordean esandakoa, hau da: euskara eta berdintasun irizpideei ematen zaien kontsiderazioak kontratuaren helburuarekin zer ikusi zuzena ez dutela eta horren ondorioz konkurrentzia irizpidearen aurkako diskriminazio klausula aurreikusten dela Pleguan.

Proposamenarekiko, iritzi hauek azaldu dira:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No apoyamos. Había un acuerdo de acometer la reforma de la calle, pero ni la manera de tramitar el proyecto, ni la cuantía, ni el resultado, ha sido procedente. Es una cantidad importante para invertir en 250 metros, Pensamos que se puede remodelar con menos dinero. Desconocemos el cómo, el cuanto ni los compromisos que hay con Gipuzkoako Urak para mejora dei nfraestructuras. Tampoco sabemos si se ha hecho un estudio de tráfico en esa calle. Tal vez esa calle tenga que ser de dirección única, pero no hemos tenido un estudio para contrastarlo. Se presenta un proyecto encima de la mesa y se propone su aprobación. No se ha trabajado como se tiene que trabajar. Se van a hacer cosas que, honestamente, creemos que no son inneceasrias.”

Alkate jaunak esan du, LEBER enpresaren azterlan bat dagoela.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bidegorria egiteak harridura sortzen dit eta atzera buelta ez duen obra bat egiteak nahiz txirrinduentzako bideei buruzko Egitasmo Orokorra ez onartzeak eta bidegorria egitea kezka sortzen dit. Aparkalekuak kentzen dira, baina nora eramaten dira?. Eremu hori uharte bat bezala geldituko denaren irudimena dut. Aurrekontua, hasieran aurreikusita zegoenarekin erkatzen badugu, hirukoiztu egiten da. UR ZERBITZUAK obraren zati bat bere gaienean hartuko du, baina kontuan izan, gu ere ba garela UR ZERBITZUAK.

Nik eskatuko nuke bidegorri horri zentzu bat ematea eta gaizki ateratzen bada, atzera bueltatzeko aukera izatea, izan ere Egitasmo Orokorra onartzen ez bada, ez du inolako zentzurik.

Gure jarrera abstentzioarena izango da.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Bidegorriarena egitasmo orokorrarekin lantzeko eta GIPUZKOAKO URAKekin hitzarmena egiteko konpromisoa hartzen dugu. Kontua da obra guztiarekiko bidegorriak %5a suposatzen duela.”

Josi Insausti jaunak (H1) adierazi du bere jarrera abstentzioarena dela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (BILDU, ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu da.

### **3.- ESTEBAN LASA ETA BISTA ALAI KALEEN ARTEKO ETA MARIARATS KALEETAKO MALDAK EGONKORTZEKO OBREN AZKENEKO LIKIDAZIOA.**

Esteban Lasa eta Bista Alai kaleko hegala Mariarats kaleko hegala egonkortzeko obren likidazioa onartzea proposatu da. Obrak 99.496,85 €tan BEZ barne esleitu ziren eta likidazioa berriz, 120.072,77 €takoa izan da. Diferentzia: 20.575,92 € BEZ barne (%20,68). 2014ko martxoko data duen udal aparejadorearen txostenaren arabera, horren arrazoia, ondorengoa izan da:

- Esteban Lasa-Bista Alaia hegalean: babes hesiaren luzera handitzea: 1.257,31 €.

- Mariarats hegalean: garbitze, belar-sastrak kentzea, kableatua, sarea eta tentsoreen neurketa handitzea: 19.318,61 €.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da, likidazioa onartzea.

#### **4.- ARGINDAR ELEKTRIKOA HORNITZEKO KONTRATAZIOA.**

Ezagutzera eman da, 2014ko apirilaren 15eko proposamena:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontratazioen Zentralaren bidez, IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. Enpresarekin burutu du espedientearekin bat egin duten foru eta udal erakundeentzat, ARGINDAR ELEKTRIKOA HORNITZEKO kontratatzeko Esparru-Akordioa.

Esparru Akordioak urtebeteko iraupena izango du 2014ko maiatzaren 1etik aurrera eta urtebeteko 3 luzapen egin ahal izango dira.

Beasaingo Udala esparru akordio horri horniketa beharrezkoa denez, horniketa kontratua eratorria, esparru akordioa burutu den enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea proposatzen da ezarritako baldintza administratiboen eta teknikoak kontutan hartuta eta eransten den proposamen ekonomikoaren arabera.

Horren ondorioz, Zerbitzuak, Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordeak, Gobernu Batzordeari ondorengo proposamen erabakia egiten dio:

IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea, ezarritako baldintza administratiboen eta teknikoak kontutan hartuta eta eransten den proposamen ekonomikoaren arabera.

Horren ondorioz, Zerbitzuak, Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordeak, Gobernu Batzordeari ondorengo proposamen erabakia egiten dio:

IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea, ezarritako baldintza administratiboen eta teknikoak kontutan hartuta eta eransten den proposamen ekonomikoaren arabera.

**EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE ENERGÍA ELÉCTRICA****ANEXO I.2 - PROPOSICIÓN ECONÓMICA - DETALLE****EMPRESA: IBERDROLA GENERACIÓN S.A.U.****RESUMEN DE PRECIOS UNITARIOS POR TARIFAS Y PERIODOS**

TARIFA	POTENCIA (€/KW)						ENERGÍA (€/KWH)					
	PP1	PP2	PP3	PP4	PP5	PP6	PE1	PE2	PE3	PE4	PE5	PE6
<b>2.1 A</b>	42,022152						0,153592					
<b>2.1 DHA</b>	42,022152						0,181175	0,076779				
<b>3.0 A</b>	41,717238	25,030341	16,686897				0,133486	0,105777	0,057217			
<b>3.1 A</b>	60,550405	37,339809	8,562444				0,114348	0,098376	0,059017			
<b>6.1</b>	40,050182	20,042426	14,667727	14,667727	14,667727	6,692364	0,130247	0,107954	0,100032	0,088910	0,079311	0,058483

**5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezea, bilera eguerdiko ordubatak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta idatzi eta sinatu dut.